



COLEGIO
URKIDE
SCHOOL /
IKASTETXEA

SENIDEEI ONGIETORRI GIDALIBURUA

HAUR HEZKUNTZA

1. Orduategia
2. Arloak-hizkuntzak-ikasgelak
3. Arau orokorrak
4. Irteerak, jarduerak
5. Lehen Hezkuntzara pasatzea

HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKO ANTOLAKUNTZA OROKORRA

Ordutegia

- Goizez: 09:00etatik 12:45era
 - jolas-ordua 10:30etik 11:00etara
- Arratsaldez: 15:00etatik 16:45era

1. HAUR HEZKUNTZA

- **Talde bakoitzak gela bat du.** Talde bakoitzean hiru irakasle sartzen dira, hizkuntza bakoitzeko bat. Horietako batek tutoreko lana egiten du. musika eta psikomotrizitatea emateko irakasle adituekin kontaktzen dute.
- **Arratsaldean** etortzea edo ez, aukerakoa da.

2. eta 3. HAUR HEZKUNTZA

- **Arloak-hizkuntzak-ikasgelak:** Maila bakoitzeko 3 gela ditugu, bakoitza hizkuntza bati eskainia eta maskota batekin identifikatua. Eskola-jardunaldiak 3 zati ditu eta taldeak batetik bestera txandakatzen dira egunean zehar.
 - **Gaztelania:** gaztelania, aurre-irakurketa, aurre-idazketa.
 - **Euskara:** euskara, logika-matematika, musika.
 - **Ingelesa:** ingelesa. plastika, psikomotrizitatea.
- Talde bakoitzak 3 irakasle ditu, hizkuntza bakoitzeko bat, eta horietako bat tutorea da. Horrez gain, psikomotrizitateko espezialista bat eta musikako beste bat dute.

Arau orokorrak

ARROPA

- Neska-mutilek **txandala edo antzekoa** jantziko dute, hau da, gerrialde malgua duten elastikoak edo prakak, gerrikorik gabe, ondo mugitu, jolastu eta, batez ere, haien autonomiaren garapena errazteko.
- **Zapatak.** Onena **belkro** bidezko itxitura duten zapatak janztea da, lokarririk gabe. Psikomotrizitate-saioetarako nahitaezkoa da belkro-zapatilak erabiltzea. Saio horietan oinutsik daude eta beraiek jantzi eta erantsi behar dituzte oinetakoak, behar izanez gero lagunduko bazaie ere.
- Haur guztiek **ordezko arropa** izan behar dute poltsa batean. Ikastetxeak utzitako arropa eramaten badute etxera, lehenbailehen itzuli beharko dute **garbiturik**.
- Jantzi **GUZTIEK ikaslearen izena izan behar dute markaturik**, nahasmendurik gerta ez dadin. Beroki eta ziretan **zinta edo goma LUZE bat jarri behar da**, haurrek arropa esekigailuan erraz esekitzeko.

JANGELA

- Marra berdedun **amantal** bat janzten dute, haien izena idatzita duena.
- Haur Hezkuntzako **1. mailako** ikasleek **siesta** egingo dute. Horretarako hamaka batzuk izango dituzte ikasgelan horretarako prest eta monitoreen zaintzapean. Bakoitzak tapaki bat ekarri behar du etxetik.
- **2. eta 3. mailakoek** aukeratu ahal izango dute Gurasoen Elkarteak eskainitako **jardueren** eta **jolasaldiaren** artean, monitore eta hezitzaileen zaintzapean, harik eta arratsaldeko eskolak hasi arte.

HAMAIKETAKOA

- Komeni da ikastetxera hamaiketako eramatea, **jolas-orduan** jateko. Hamaiketakoak haurraren izena idatzita eraman behar du; izan ere, goizean, ikasgelan sartzean, guztiontzako erretilu batean utziko dute, eta ondoren irakasleak banatuko ditu hamaiketakoak ikasleen artean. Gomendatzen dizuegu hurrei industria-opil eta antzeko elikagai, zuku eta irabiaki gehiegi ez ematea, eta fruta-piezak eta ogitarteko txikiak aukeratzea.

URTEBETETZEAK

- Urtebetetze-egunean, umeek etxeko bizkotxo xume bat eraman dezakete ikaskideekin ospatzeko, edo bestela galleta sorta bat, baina gozokirik ez. Egun horretan, makinista izango da.

IRTEERAK, JARDUERAK (ESKOLAZ KANPOKOAK)

- Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikasleek ikasgelaz kanpo egin beharreko jarduerak programatuko dira (antzerkiak, irteerak, ludotekak eta abar). Maila bakoitzaren kostu globala 10 hiletan banatu eta dagokion ordainagiriarekin kobratuko da (eskolaz kanpokoak). Ikasturteko lehen bilera ofizialean informazio zehatzagoa emango da eta gurasoei zirkularren bidez oroitaraziko zaie jarduera bakoitza.

LEHEN HEZKUNTZARA PASATZEA

- Hirugarren hiru hilekoaren amaieran informazio-bilera bat egingo da Haur Hezkuntzako 3. mailako ikasleen familiekin, Lehen Hezkuntzako ikasketa-buruak deituta, etapa berriaren ezaugarriak eta berritasunak azaltzeko.